

MUSEOEN DIGITALIZAZIOA II: KASU PRAKTIKOAK IKASTAROAN IZEN-EMATEKO ORRIA

Museoek haien kolekzio eta ekintzen kontrol egokia mantentzeko behar-beharrezkoa dute informazioa modu, ordenatu, zehatz eta eguneratua mantentzea. Iaz Oiaso Museoa, UPV-EHU Udako Ikastaroak Fundazioarekin batera, Valentziako Museo de Prehistoriak garatutako katalogazio metodo integralari buruzko ikastaro bat prestatu zuen. Render S.L. enpresako adituek kolekzioak berehala publikatzeko garatu duten sistema berri bat aurkeztu zuten. Iazko publikoaren harrera onari erantzunez, aurten KUTXA Fundazioaren laguntzarekin esperientzia errepikatuko dugu, baina, kasu honetan, sistema berri honen alde praktikoan sakontzeko.

*Kurtsoa gazteleraz izango da. Kurtsoa ongi jarraitzeko ez da beharrezkoa iazko kurtsoan parte hartu izana.

LEKUA ETA ORDUTEGIA:

- AURREZ-AURREKO KURTSOA: Asteazkena, 2023ko abenduak 13
 - o Goizez: 09:00etatik 14:00etara. Oiaso Museoa – Portu Gelan.
 - o Arratsaldez: 16:00etatik 19:00etara. Oiaso Museoa – Portu Gelan.

PROGRAMA

1. Interface eta nabigazioa
2. Usuarioak
3. Inbentario fitxen prestaketa
4. Idatzizko materialekiko sarrera
5. Erlazionatutako datuak
6. Media: irudiak, bideoak, pdf
7. Bilaketak
8. Bloke aldaketak
9. Thesauros; hierarkiak, deskriptoreak, ez deskriptoreak, erlazioak
10. Prozesuak: ahozko memoria

DATU PRAKTIKOAK

Prezioa: Dohainik

Beharrezko materialak: Beharrezkoa da partaide bakoitzak bere ordenagailu portatila ekartzea Oiaso Museora.

Informazio gehiago: 943.63.93.53. telefonoan.

✂.....

"Museoen Digitalizazioa II" IKASTAROAREN IZENA EMATEKO ORRIA

Izen-abizenak

NAN.....Telefonoa.....Emaila.....

Data, sinadura edo zigilua